

*"maite ditut maite
gure bazterrak
lanbroak
izkutatzen dizkidanean"*

J.A. Artze



Mikel Arrizabalaga

ARTIKUTZAren erraiak

7 ibilbide zirkular

ARTIKUTZA inguratzen duten mendien magaletatik esekitzen diren baso trinko eta sakonetan ezkutatzen dira iraganaren lekuko isilak. Haran estuen bihotzean murgiltzen bagara, egun naturaren altzoan lokarturik dauden historiaren paperteak irakurri ahal izango ditugu eta errekañoen urek zizelatu dituzten paraje hauek ezagutzuz gero, oharbako gara mendeetan zehar izan duten garrantzia. Garai bateko jarduera desberdinen aztarnak aurkituko ditugu bazter guztietan, baita misterioz betetako inguruak ere. Bizimodu desberdinen eta bertako errekurso naturalen ustiapen ugarien lekuko izan diren lur hauek iraganak loak hartu du. Utzi dezagun lo!

■ Barru aldea hustuta duen pago enborra



1 Bianditzeko itzulia

Luzera: 5 km
Desnibela: 240 m
Denbora: 1 ordu 45 min

■ ESKAS

Artikutzako atezaindegiaren ezkerretik atera, langa igaro eta berehala basoan murgilduko gara "napar bidea" izenez ezagutzen den bidea segituz. Bide honen lehen zatian PR NA 125aren marka zuri horiak izango ditugu bidelagun. Batzutan, enbor luze eta leuna duten zuhaitz gazteak ikusiko ditugu, bestetan, berriz, adar erori eta zimurrez beteriko zuhaitz zaharrak. Bakoitzak bere lekua okupatzen baitu espazio erakargarri honetan. Hotsak ez dira falta ere, txorien kantak ezezik, errekaetoen urek orbel eta harrien gainetik igarotzean inguruari jartzen diote musika. Pinu, pago eta izeien artean zabaltzen den bidea oso eroso da eta Burnaiztieta lepora jaitsi aurretik Burdin Aroko mairubaratza bat (harrespila) ikusi ahal izango dugu.



■ Eskaseko atezaindegira iristen

■ BURNAIZTIETA

Artikutza mugatzen duen hesiaren beste aldean Gaztin borda dago, ehiztarien gordeleku. Barrutia inguratzen duen alanbrezko hesia gainditu eta norabidea aldatuz, Galtzarrietako gain aldera joko dugu hesiaren paraleloan. Aldapa pikoia da eta Domiko urtegiaren aldera dagoen ikuspegi ederraz gozatzuz, laster izango gara tontorrean. Gutunontzia eta metalezko piramide txiki bat granitzoko arrokkaren gainean. Aldapa txiki bat jaitsi eta gertu dagoen Bianditzeko gailur aldera joko dugu.

■ BIANDITZ

Hesiaren beste aldean gorosti ale bikain batzuk han hemen barreiatuak. Belarrezko tapiza zapalduz gailurrera igoko gara eta bertan, gure mendietan ohikoak diren elementu batzuk: erpin geodesikoa, gutunontzia, gurutzea eta oroitarri bat. Hesiaren ondotik segi, aldapa txiki bat jaitsi eta Irumugarrieta izenez ezaguna den puntura iritsiko gara, Lesaka, Oiartzun eta Goizuetako udalbarrutiek bat egiten duten tokira hain zuzen. Bertan, Arritxolagainako multzo megalitikoak aurkituko dugu, hamar mairubaratzez eta bi tumuluz osatuta. Hauen ondoan, lur hauek garai batean Orreaga-kolejiataren jabegoa zirela adierazten duen mugarri eder bat.



■ ITURRIA

Marka zuri gorriak jarraituz (GR 121), bide erosoak Bianditzeko lepora garamatza, barrutitik urrutiratuz. Beraz, Artikutzako barrutia mugatzen duen alanbrezko hesia erreferentzi gisa hartuz, honen paraleloan segi eta aldapa pikoia jaitsiko dugu. Laster izango gara Artikutzako sarrera adierazten duen kartelaren ondoan, baina metro batzuk lehenago zintzurra freskatzeko iturri bikain batekin egingo dugu topo. Errepidean barna aurrera segituz, berehala helduko gara atezaindegira.



■ Galtzarrietako gaina Burnaiztieta lepotik

MAIRUBARATZAK

OIARTZUNGO mendietan eta Nafarroako inguruko herrietan harrespil mordoak aurki dezakegu. Oiartzunen "Mairubaratzak" izenez ezagutzen dituzte. "Mairu" hitza euskal mitologiarekin lotuta dago, izen honekin kristauak ez diren pertsonak izendatzen dira, bataiatu gabeak. Normalean monumentu megalitiko hauek mendilepo edo muinoetan kokaturik daude, batik bat artzaintza oso zabaldua zen ingurutan. Esan behar da Bianditz-Oianleku inguruko parajeak artaldean joan-etorrien lekuko izan direla mendeetan zehar. Azpimarratzekoa da ere, Burdin Aroan Euskal Herriko ekialdeko direnekin harrespilak eta tumuluak eraiki zituztela, errausketa egin ostean, gorpuzkinak ehortzeko eta mendebaldekoek berriz trikuharriak. Artikutzako lurretan ugariagoak dira harrespilak, 60tik gora baitaude, baina hauek haranen sakonean baino barrutiaren zonalde altuetan daude. Trikuharriak, berriz, hiru bakarrik aurkituko ditugu.



■ Irumugarrietako mairubaratzak



2 Erroiari inguratuz

Luzera: 11 km
Desnibela: 340 m
Denbora: 3 ordu

■ ESKAS

Guardaren etxetik abiatu eta 400 metro inguru beteko ditugu errepidetik PR NA-124ari dagozkion bide-seinale zuri-horiak jarraituz. Errepidea utzi eta pagadian murgilduko gara. Bidea zabala da eta jaitiera piko batek, Eskaspe erreka igarotzeko egur enborrez egindako zubitxora eramango gaitu. Bidea leundu egiten da eta isiltasuna nagusituko da goroldioz jantzi-tako pago zaharren erreinu honetan.



■ Eskaseko atezaindegia

■ ERROIARRI

Aurrerago, beste zubitxo batek Erroiari erreka igarotzen lagunduko digu, izen bera duen urjauziaren ondora heldu aurretik. Gure eskuinera eta bidetik at, balkoi natural bat dago eta kontu handiz ibili behar da gerturazean.


Bidera itzuli eta Elizmendi ingurura iristean ekosistema-ren aldaketa nabarmenaz ohartuko gara, pagadia atzean utzi eta haritz, gorosti eta hagin ale bikainak ikusteko parada izango dugu. Jaitiera txiki baten ostean, urtegia inguratzen duen pistarekin bat egingo dugu. Ataka metalikoa gainditu eta berehala izango gara Artikutzako auzoan.



■ ARTIKUTZA

Auzora iristean, hau osatzen duten dozena bat eraikin ikusiko dugu. Benta Zarra ezkerrean utzi eta errepidetik ehunen bat metro bete beharko ditugu eskuinera ateratzen den bidezidor batekin topo egin arte. Egurrezko sein-

■ Erroiari ur jauzia



ARTIKUTZAKO MAPA ETNOGINTZA L. DEL BARRIO, L. ZALDUA

leak adierazten duen norabidea jarraituz igoera luze eta gogor bati ekingo diogu itzalean.

■ BIDE ESTUKO TRENBIDEA

Aldapa amaitzean, bidegurutze batekin egingo dugu topo. Bide balizatua jarraitu aurretik, ezker aldera joko dugu egurrezko seinaleak erakusten duen lekutik. 150 bat metro beteko ditugu burdinbide zaharraren plano inklinatuan dagoen geltokiaren azarnak ikusteko. Bidegurutzera itzuli eta burdinbidearentzat irekitako bidean barna aurrera jarraituko dugu. Laster, eskuin aldean, bidetik metro batzuk beherago, granitoan landutako errotarriak ikusiko ditugu. Aurrerago, Erroiari-ko behatoki naturala dagoen lekura iritsiko gara eta bertatik Artikutzako baso trinkoen ikuspegi zabalaz gozatzeko aukera izango dugu. Pagadian sartuko gara berriro eta pista zabal eta eroso jarraituz errepidera iritsiko gara, Eskaseko guardaren etxetik gertu.

BIDE ESTUKO TRENA

EGUN ingurune babestua bada ere, historian zehar Artikutzako lurak bizimodu desberdinen eta bertako errekurtso naturalen ustiapen ugarien lekuko izan direla esan behar da. Europan gertatu ziren aurrerapen teknologikoen ondorioz, burdinolak baztertu egin ziren, erabat ahaztu arte. Hauek izan ziren garai zailenak. Momentuko korrante sozio-ekonomikoen babesean, egur-ikatzaren ekoizpena eta meategien ustiapena (burdina batik batik) indartu eta areagotu egin ziren. Horrela, 1898an bide estuko trenna eraiki zen ustiapen horiek errazteko. 1903tik 1908ra Artikutzako Oihandar eta Ustiapenerako Konpainiak eratu ziren. Burdinbidearen bihotza Elamako meategi gunea zen eta hau Errenteriako iparraldeko geltokiarekin komunikatzera iritsi zen, plano inklinatu eta korapilotsu baten bitartez. Neurririk gabeko ustiapen hauek basoaren berehalako atzerakada ekarri zuten 1919an Donostiako udalak finka erosi eta berreskurapen lanak hasi arte.



■ Burnibide zaharraren arrastoak erakusten duen bide-seinalea



3 Enobietako urtegia

Luzera: 7 km
Desnibela: 65 m
Denbora: 1 ordu 30 min

■ ARTIKUTZA

Almandoz etxea inguratzen duen pistan zehar, laster San Agustin kaperaren ondotik pasako gara eta ibilbidean aurkituko dugun aldapa bakarrari aurre egingo diogu. Lehenengo txaleta eskuinera utzi eta aldapa amaiztean, ezkerrera doan pista jarraitu behar da, eskuinekoa aterpetxera baitoa. Ibilgailuen pasoa eragozten duen langa metalikoa pasa eta pista zabala bezain eroso jarraituz urtegia inguratzen hasiko gara. Ibilbide osoa balizaturik dago eta bide seinale zuri-berdeak izango ditugu bidelagun (SLNA 121).



■ Artikutza herrian, San Agustin ermita



■ Enobietako urtegiaren ikuspegi zabala



■ PISTA

Ezker aldera beste bide bat ateratzen da eta hau jarraituz gero, Eskasera, atezaindegira igoko ginateke. Bidea urtegiaren ertetik zertxobait urrun doa eta ibilbidearen zenbait lekutan ez da ikusi ere egiten, udaberrian eta udan batik bat zuhaitzen hostoek urtegiaren ikuspegi eragozten baitute. Berehala, gure ezkerrera sekuoia eder bat ikusiko dugu eta kilometro eta erdi bete ostean, Egazkiko baserriaren hondarrak ikus daitezke. Gertu belazeak.

■ ZUBIA

Enobietako errekararen gainetik pasatzen den lehen zubia igaro eta berehala, Urgurutzen, Pagolletara igotzeko bidea adierazten duen egurrezko hesola ikusiko dugu. Usanbelarreta errekararen gaineko bigarren zubitik pasako gara eta gertu, hamabost metrora iristen den hagin bikain bat ikusi daiteke. Bide erdia beterik, orain urtegiaren beste aldetik itzulia osatuko dugu. Gorritxo errekararen ondora heltzean, pista azpitik teila-labe baten hondakinak eta ikazkintzaren aztarna ugari aurki daitezke. Aurrera jarraituz, ezkerrera, Lizarrurdiñetara igotzen den bide zabala aurkituko dugu. Haritz amerikar eta alerteen artetik aurrera jarraituko dugu.

■ URTEGIA

Laster Auntzazulo errekarara helduko gara eta aurrerago urtegia eraikitzeko erabilitako harrobiaren arrastoak. Eraikuntza batzuen aztarnen ondorengo pasa eta beste langa batekin egingo dugu topo. Pistak behean egiten du eta lzu mendira igotzeko bidearen parean, pista utzi eta eskuinera jaisten den bidezidorrari helduko diogu, egurrezko hesolak herrira jaisteko bost minutu behar direla adierazten duen norabidean. Berehala izango gara urtegiaren ormatzarren ondoan eta bertatik izango dugu ikuspegi zabal eta ederrena. Xenda pinudian sartu eta sigi-sagan jaitziz bost minutu beharko ditugu Artikutzako auzora jaisteko.

ARTIKUTZA

1919. urtean Donostiako udaletxeak lur hauek erosi eta 1947. eta 1960. urteen artean Enobietako urtegia altxatu zuen. Zenbait bizileku berri eta beste batzuk eraiki ziren egun Artikutza herria edo auzoa izenez ezaguna dena sortu arte. Hauekin batera bideak berritzen dira, batez ere Oiarzundik datorrena. Gaur egun eremu honen mantendurako familia gutxi batzuk baino ez dira bizi. Artikutzako antzinako burdinola izan zenaren inguruan eraiki ziren etxe batzuk: Olajaundi, Ostatu Zarra, Almandoz, Olazar eta Bekoetxe. Beste batzuk, berriz, beranduagoak dira: San Agustin kapera, zentral elektriko txiki bat, barrakoiak, ikuztegia, zubiak, txaletak eta udaleko aterpea.

Urtean behin, San Agustin egunaren inguruan, Orreagatik Artikutzara joaten ziren nagusiak, bertakoei errentak kobratzeko. Gaur egun, berriz, abuztuaren 28an, San Agustin egunean hain zuzen ere, Artikutzan jai giroa nagusitzen da. Egun horretan ateak zabaltzen dira nahi duenak bertara joateko, baimenik eskatu gabe. Urte osoko isiltasuna apurtzen da eta festa giroa nagusitzen da.



■ Artikutza herrian, Olajaundi izeneko etxea



4 Izu eta Pagolleta

Luzera: 10 km
Desnibela: 510 m
Denbora: 3 ordu 15 min

■ ARTIKUTZA

Almandoz etxearen ondotik San Agustin ermita aldera hartu eta berehala pista utziko dugu eskuinean dugun belardia zeharkatzen duen xendari heltzeko. Berehala pinudian sartuko gara eta sigisagan urtegiaren hormatzararen ondora iritsiko gara. Bertatik izango dugu ikuspegiarik zabal eta ederrena. Xenda jarraituz urtegia inguratzen duen pistara helduko gara. Parez pare Izura igotzeko PR NA 125aren bide-seinale zuri-horia atakan margoturik ikusiko ditugu. Pagolletaraino bidelagun izango ditugu.

■ LIZARURDIÑETA

Langa igaro eta aldapa malkartsu bati aurre egingo diogu eta lehen izerditan kopetatik isurtzen hasi orduko pistara helduko gara. Ezkerrera hartuz gero, berriro urtegioko pistara jaitsiko ginatke, beraz gorantz joko dugu. Aldapa pikoak ez du etenik. Pagadi eta pinu gorrien basora iristean bidea zertxobait leundu egiten da eta tarteka txondor plaza batzuk ere ikusiko ditugu. Gorago, landaretzak ezkatututako eraikin megalitiko batzuk atzean utzi eta bidegurutze batera iritsiko gara. Ezkerreantz joz gero, pagadi bikain bat zeharkatuz Pagolletara jaitsiko ginatke, eskuinera, berriz, Barazar aldera. Guk aurrean dugun bidezidorrari eutsiko diogu eta tontorrera, Izu aldera abiatuko gara azken maldari ekinaz.



■ Izuko tontorra, Artikutzako barrutiarekin mugan

■ IZU

Bost minutu eskas beharko ditugu alanbrezko hesiaren beste aldean dagoen Izuko gailurra zapaltzeko. Parez pare Mendaurko tontor bikaina eta honen ondoan Mendieder. Arantza herriaren eta Arrata errekek zeharkatzen duen



■ Gorosti bikaina Pagolleta inguruan



■ Artikutzako barrutiaren ikuspegi zabala Pagolletatik

haranaren ikuspegi ederraz gozatzeko aukera izango dugu. Ikusmenari gozatua eman ostean, hesiaren ondotik doan zidorra segituko dugu eta berehala iritsiko gara basora. Amekorrungo atakan ondoan berriro Artikutzako barrutian murgilduko gara eta pagadian aurkituko dugun orbela zapalduz erraz jaitsiko gara Pagolletara.

■ PAGOLLETA

Basotik atera eta Pagolletara iristean Orreagaren garaiko mugarri bat ikusiko dugu, eta honen atzean, barrutitik kanpo, trikuharri baten aztarnak. Leku honetan egurrezko hesola batek norabide desberdinak erakutsiko dizkigu. Hesia zeharkatuz gero, Igantzi-Lesaka aldera jaitsiko ginatke, aurrera segituz Eskaseko atezaindegira eta ezker aldera jaitsiz gero, Enobietako urtegiara. Guk azken hau aukeratuko dugu abiapuntura itzultzeko. Ez dugu bide-seinalerik ikusiko baina oso bide egina da eta pagadian zehar berehala izango gara, Urgurutzen. Puntu honetatik Artikutzara bueltatzeko urtegia inguratzeko duen pista jarraitu behar dugu (ikus 3. ibilbidea).

ORREAGA

XIII. mendera arte ez ditugu lehenengo erreferentzi historiko idatziak aurkituko eta horietan, antzina lurralde hauek Orreagako Errege Etxe eta bere Ospitale Orokorren menpe egon zirela aipatzen da. Egun, barrutiaren hainbat lekutan Monasterio ospetsuaren irudia den makulua landurik duten zenbait mugarri ikus ditzakegu. Ehun mugarritik gora mantentzen dira oraindik. XIX. mendean Mendizabal eta Esparteroaren Desamortizazio legearen arabera lurralde hauek besterenduak izan ziren eta ondorioz, hurrengo urteetan jabez maiz aldatu ere. Beraz, esan daiteke, XIII. mendetik XIX. mendera arte barruti osoa Orreagako Santa Maria Kolejiata Errealaren eskutan egon zela eta garai horietan eman zela Artikutzako balore naturalen ustiatetarik handiena, mende horietan sortu baitziren burdinaren metalurgia gunerik garrantzitsuenak. Ikazkinek, artzainek, karobigileek eta burdingintzan aritzen zirenek jabeen errenta ordaintzen zieten lur horien ustiatetaren truke.



■ Orreagako mugarria



5 Urdallueko harana

Luzera: 6,5 km
Desnibela: 320 m
Denbora: 2 ordu 30 min

■ ARTIKUTZA

Frontoiaren ondotik doan bidea hartu eta ezkerretik ateratzen den pistatik, Enobietako urtegirako norabidea hartuko dugu. Aurrera jarraitu eta bihurgune nabarmen batera heltzean, langa igaro eta eskuinera hartuko dugu errekaaren ondoan dagoen zubitxora iristeko. Hau pasa eta ezkerreara hartu behar da, errekaaren ondotik metro batzuk betez. Bide zaharra Otarango pagadian murgiltzen da sigi-sagan altuera hartuz.

■ OTARAN

Enbor luzeko pago gazte askok osaturiko pagadi ikusgarri bezain eder honetan murgildurik, orbelak lurra erabat estaltzen du eta tarteka bidea ikusgaitza da. Pagaditik ateratzean, Goizarindik Beltzuntzera doan pista batekin egingo dugu topo. Metro gutxi batzuk aurrerago, berriz, ezkerreara hartu behar da Urdallueko pagadian barneratzen den beste xenda bat jarraituz. Pago enborrean marka gorri bat ikusiko dugu.



■ Urdallueko sakan aldera jaisten

■ BURDINOLA

Pagadia zeharkatzen duen bidezidorra segituz, laster sakanaren hondora helduko gara. Enborrez eraturako zubitxo bat zeharkatuko dugu beste aldera pasatzeko. Urdallueko burdinola eta baserri-multzo zaharraren aztarnek aurrez aurre egingo dugu topo. Denboraren poderioz, natura pixkanaka eraikin hauek guztiak estaliz joan da eta egun zail samarra gertatzen da eraikin horien egitura osoa nabarmentzea.



ARTIKUTZAKO MAPA. ETNOGINTZA, L. DEL BARRIO, L. ZALDUA

■ UBIDEA

Baserri-multzoa utzi eta sakanaren ezker aldeko mendialdetik doan bide zabala hartuko dugu. Berehala, Lapurzulo izenez ezaguna den meatzal ingurura iritsiko gara eta aurrerago, garai batean Ollagarate errekatik Lizarrurdiñetako deposituraino ura garraiatzen zuen ubide bat aurkituko dugu, honek herri-tik gertu zegoen zentral bat elikatzen baitzuen. Bidea, ubidearen ondotik doa depositurara iritsi arte. Segidan Lizarrurdiñetatik jaisten den pista hartuko dugu urtegia inguratzen duen pistarekin bat egin arte. Hemendik herrira jaisteko, urtegiaren hormaren ondotik pasatzen den zidorra hartuko dugu, egurrezko hesolak erakusten duen norabidean.



■ Urdallue erreka gainditzeko zubia

PAGADIAK

ARTIKUTZAN ekosistema ezberdinak aurkitu badaitezke ere, pagadiak dira urtegiaren inguruko lurrak estaltzen dituzten komunitate handienak. Hauen azpian eta beraien estaldura dentsua izaki, lurra biluzik dagoela esan daiteke, orbela eta goroldioa izanik beren biztanlerik ugari eta nabarmenenak. Zenbait onddo ere aurki daitezke ingurune hauetan, baina agian beren tamaina eta hazteko lekuarengatik (pago enborretan) ardagaia, enbor zaharren apaingarri gisa, ikusgarrienak suertatzen dira. Baina pagadiak mundu oso bat ezkutatzen dute, ekosistema honen oreka mantentzen duten biztanleak ugariak izanik.

Pagadiko hezetasunak zenbait anfibioentzat bizi-baldintza egokiak eskaintzen ditu eta narrastientzat leku aproposenak ez badira ere, gutxi batzuk aurkituko ditugu. Hegazi espezieak urriak dira pagadietan eta ugatzunak ere badira inguru hauetan.



■ Otarango pagadi bikainean aurkituko dugun txondor plaza bat



6 Ubidea jarraituz

Luzera: 9 km
Desnibela: 35 m
Denbora: 2 ordu 30 min

■ ARTIKUTZA

Frontoiaren ondok bidea hartu, Olazar etxea pasa, urtegiara doan pista utzi eta aurrera jarraituko dugu. Zerrategia gure eskuinera lagako dugu eta erre-karen paraleloan doan pistan barna aurrera egingo dugu. Zubira heltzean pista utzi eta eskuinetik ateratzen den bidezidorrari helduko diogu. Bide hau Artikutzatik Añarbeko urtegiara doan ubidearen gainetik zabalzten da eta tarteka ur hodiaren zatiak lur gainean azalduko zaizkigu. Bide estua jarraituz garai batean Elamako meategi gunetik heltzen zen burdinbidearen plano inklinatuaren hasierara helduko gara (ikus 2. ibilbidea). Bidea eroso da, batere aldaparik gabe. Ezker aldean, Artikutza erreka gure mendean eta eskuinera, berriz, pagoz eta haritzez osatutako baso trinkoak.


■ PRESAETXE

Xenda jarraituz erraz iritsiko gara Ugaldeko presaren ondora. Eraikin txiki batzuk, erreka igarotzeko zubia, urtegi txikia eta ur-saltoa.

Beste aldera pasa eta abiapuntura itzul gaitzeko, baina guk aurrera egingo dugu. Eskuin aldetik, txabola zuri baten ondora igo eta ubidera jaitsiko gara. Beste aldean Presaetxe baserriaren aurriak ikusiko ditugu. Hemendik aurrera ura agerian izango dugu eta bere ondok marrazten den xenda jarraituko dugu. Tarteka, ubidearen horma erabiliko dugu leku estuak igarotzeko, beti ere kontu handiz. Harana estutzen doan heinean, bideak bihurtuak marrazten ditu.

■ BERDABIO

Gorabeherarik gabeko ubidea segituz las-ter iritsiko gara Berdabioko baserriaren



ARTIKUTZA MAPA ETNOGINTZA L. DEL BARRIO L. ZADUA



■ Ubideak gainezka egin du eta erreka urak isurtzen ditu

ateratzen den bide zaharra hartuko dugu baserriari bizkarra emanez. Berehala murgilduko gara basoan eta gaztainondo zaharren artean pixkanaka altuera hartzen hasiko gara. Antzinako bide hau tarte batzuetan desagertu egin da higaduraren ondorioz, baina berehala ohartuko gara ubide zaharraren presentzia eta horrek lagunduko digu bidezidor zuzena aukeratzeko.

■ PRESAETXE

Basotik apenas atera gabe, erreka beste aldean ikusiko dugu Berdabiora joateko erabili dugun ubide eroso. Orain, berriz, bide zahar haustiak ahalegin handiagoa eskatuko digu. Gure ahaleginak Presaetxe baserriaren ondora eramango gaitu eta metro batzuk aurrerago Ugaldeko presara igotzeko amurrainek erabiltzen duten eskusa. Ez dugu zubia igaroko eta aurrera segituz, ubide zaharraren gainetik erraz helduko gara Oronozko-Zubietako zubiaren ondora. Elama aldera doan pista utzi eta Artikutza aldera joko dugu. Bi eraikin zahar atzean laga ondoren, kilometro eskas bete eta zubia gurutzatuko dugu. Hemendik herrira ailegatzeko hamar minutu beharko ditugu.

parera. Leku honetan alanbrezko hesia gainditu eta xenda txiki bat bilatuko dugu erreka ondora jaisteko. Zubi zaharra igaro eta erreka beste aldean izango gara. Leku isila, naturaren babesa bilatzen duena ezkutuan gordetzeko aproposa. Misteriozkoa. Zubiaren ondok, ezkerrean



■ Añarbe erreka eta Presaetxe

BERDABIO

BERDABIO, urrezko txanponen faltsifikatzailea izan zela dio ahozko tradizioak. Delitu hau lruñeko kartzelan ordaindu zuen eta bertan, urtebetean zehar, hirurehun eta hirurogeita bost bertso moldatu zituen, egun bakoitzeko bertso bat. Horietatik lehen bostak, 1933. urtean argitaratutako "Anuario de Eusko-Folklore" XIII. liburuko 75-76. orrialdeetan jasota daude. Hauetako bertso batzuei Mikel Laboa abeslari ezagunak musika jarri eta oso ezagunak egin ziren. Hona hemen bertso bat:

*Berdabiyo'ren xaldiyak
Lau anak ditu txuriyak
Salto batian irago zuen
Zazpi estatuko esiya;
Beste bat igaro balu,
Seguru zuen biziya.*



■ Berdabio baserria eta Añarbe erreka



7 Goizarin eta Elama

Luzera: 13 km
Desnibela: 590 m
Denbora: 4 ordu

■ ARTIKUTZA

Frontoiaren ondotik doan bidea hartu, Olazar etxea pasa, urtegi-
ra doan pista utzi eta aurrera jarraituko dugu. Metalezko langa
igarotzeko eta pistaren zehar, errekararen paraleloan, bi erakin zahar atze-
an utzi eta Oronozko-Zubieta izenez ezaguna den lekura helduko
gara, Artikutza eta Elama errekarak bat egiten duten tokira hain
zuen. Hemen bi pista daude, bata zubia pasa eta errekararen bes-
taldetik gorantz doana eta bestea ezkerretik Elamako haranean
sartzen dena. Guk bigarren hau hartu eta berehala ibilgailuen
pasoa eragozten duen langa metaliko bat aurkituko dugu. Maizo-
lore izeneko uharkaren ondora heldu eta aurrera jarraituko dugu.
Elama errekararen beste aldean ubide zaharraren aztarnak ikusiko
ditugu.



■ Goizaringo
metalurgia-
multzora
pasatzeko bi
begidun zubia



■ GOIZARIN

Bidea eroso da, ez du batere zailtasunik. Bat batean, harrigarria
bada ere, soro zabal eta handi batekin egingo dugu topo eta erdi-
erdian oraindik meta pare baten zuhaitz-enborrak zutik. Ezkutuan
eta pistaren ezkerrean, bidetik metro batzuk gorago, karobi baten
hondarrak ikusiko ditugu. Hauek atzean utzi eta berehala Goizari-
ngo metalurgia-multzora iritsiko gara. Erreka igarotzeko bi begieta-
ko kare-harrizko bloke handiz egindako zubi baten gainetik pasa
behar da. Zuntzak, sasiek eta belarrek eraikuntza hauen hormak
ezkutatzen dituzte eta zaila suertatzen da nolakoa zen imajinatzea,
hala ere, arragoa eta burdinola hidraulikoaren aztarnak nabarmen-
agoak dira.

■ ELAMA

Berriz pistara itzuli eta tarteren batean burdinbide zaharraren
arrastoa ikusteko aukera izango dugu. Kilometro pare bat pistan

barna bete ondoren, gure ezker aldean, bidetik metro batzuk gora-
go oso egoera onean dagoen labe itzel bat ikusiko dugu. Burdin
minerala kiskaltzeko labea edo arrago baten hondakinak dira,
"labea" izenez ezaguna.

Puntu honetara heltzean, pista utzi behar dugu eta ezkerrean,
Elamako errekararen paraleloan abiatzen den bidea hartuko dugu
eta hamar minuturen buruan, Elamako baserri-multzoaren aztar-
nen ondoan izango gara. Beheraxeago mineralak kiskaltzeko labe
baten hondarrak eta errekararen beste aldean, egurrezko zubiaren
gainetik pasa eta burdinola hidrauliko zaharraren aztarnak aurkitu-
ko ditugu.

■ BELTZUNTZA ETA OTARAN

Bizileku bezala erabilitako eraikinaren aurrien atzetik, Elamako
borda zaharrera igotzen den antzinako bidezidorra bilatuko dugu.
Zenbait tartetan, xenda orbelean ezkutatu egiten da eta erne ibili
beharra dago igoerako bide egokia ez galtzeko. Sigi-sagan erreka-
tik urrundu eta basoan murgilduko gara. Une batean bideak
nabarmen egiten du ezkerrean eta gora heltzean, gure mendean
ikusitako izango dugu Elamako harana. Akuako harrespilaren
ondotik igarotzeko eta pista jarraituz beharantz egingo dugu. Hiru kilo-
metro pasatxo ibili ostean, bihurgune handi batean pista utzi eta
Otarango pagadian murgilduko gara. Hasieran bidea ez da oso
nabarmen baina metro batzuk aurrera egin eta berehala aurkitu-
ko dugu. Otarango gaina inguratu, Etzalekuko ezkerrean utzi eta
bere mazela zeharkatzen duen xendari helduko diogu. Hemendik
herrira berehala jaitziko gara.

BURDINOLAK

ARTIKUTZAN lau dira ezagutzen diren burdinola hidraulikoak, Urdallue, Elama, Goizarin
eta Artikutzako parajeetan kokatutakoak. Burdinola hidrauliko baten egitura hiru zati dira
bereizgarriak: uharka, arragoa (mineralen kiskaltze-labea) eta lantegia. Azken honek oso
egitura konplexua zuen, albo batean gurrpil hidraulikoak kokatzen ziren ardatzak
mugiarazteko; gurrpil hauek gabia eta hauspoa martxan jartzen zituzten. Hauekin batera beste
zenbait dependentsia eraikitzen ziren, hala nola langileen bizitokiak, kiskaldutako mineral eta
egur-ikatzarentzat biltegiak eta "Olaetxea" edo burdinolaren arrendatariaren bizilekua.

Industria metalurgikoarekin guztiz loturik zegoen ikazkintza izan da paisaia eraldatu duen
beste jardueretako bat eta horren lekuko pagadietan aurki daitezkeen "txondor-plaza"
(txondorrek eraikitzeko plataformak) ugariak. Ekonomia guztia egurraren inguruan oinarrituta
zegoenez, jarduera industrial honek eragin nabarmen izan zuen Artikutzako basoetan. Gaur
egun, paraje hauek isiltasunean murgildurik daude, eta naturak galdutako espazioa
berreskuratu du.



■ Goizaringo burdinolaren aurriak

Zenbait...



■ Otarango pagadi bikaina

Zenbait apunte...

Orografia

Artikutza orografia nabarmeneko mendien artean txertaturik dago. Barrutiak 3700 ha-ko azalera du eta 32 km-ko perimetroa duen mendi zirku baten itxura hartzen du. Donostiako udalak 1919an erositako lurak diren arren, Oiartzun, Lesaka, Zubieta, Arantza eta Goizuetaren herrien lurerekin muga egiten du Artikutzak. Lursaila, berez, azken herri honen barrutian dago eta denbora luzez liskarrak eta auziak izan dituzte inguru horretako errekurtsio naturalen ustiapena dela eta.

Artikutzako eraketa geologikoa Aiako Harrikoarekin batera ematen da. Prozesu hori fase desberdinetan burutuko da. Hasieran itsasoak guztia estaliko du eta ondoren, alboetako presio indarrek masa granittoa azaleratu eta isolaturik geratuko da. Granittoa trinkoa eta erresistentzia handikoa denez, Aiako Harriko eta Bianditzeko erliebea ez da aldatuko, aldiz, Artikutzako higadura prozesu luze eta geldo baten ondorioz, egun duen itxura hartuko du. Euskal Herriko lehen lurralde kontinentalak izanik, esan daiteke 300 milioi urte dituen zonalde geologiko zaharrenetarikoa dela, hots, Euskal Herriko lur eremu zaharrena.

Artikutzako zirkua osatzen duten mendien artean apenas aurkituko dugu mila metro baino gehiago duen gailurrik, baina itzuli osoa burutzen badugu aukera paregabea izango dugu mendimazeletatik haran estuen bihotzeraino zabaltzen diren baso trinkoak ikusi eta gozatzeko. Azpimarragarrienak edo ezagunenak, Bianditz, Izu eta Loitzate dira, baina badira beste gain eder batzuk barruti berezi eta eder hau beren altzoan gordetzen eta babesten dutenak: Bidango, Pagollela, Beltzuntza, Altueta...

Klima atlantikoa ematen da, oso hezea eta epela prezipitazio ugariekin. Iberiar penintsulako ingurune euritsuenetakoa da, batzate beste urteko prezipitazioa 2300 mm-koa izanik. Mikroklima berezi honi esker eta hainbat iturbururen presentziagatik, urak sekulako garrantzia izan du Artikutzaren historian. Mendez mende ura lehengaia izan da gizakiarentzat eta bere indarraz baliatu izan baita burdinolak, errotak eta beste jarduerak batzuk burutzeko.

Elama, Urdallue, Enobieta, Erroiari eta beste hamaika erreka eta errekastoren urak haran estuak zeharkatu eta zizelatu ostean, denak elkartu eta Añarbe erreka osatzen dute. Azken hau, bere urak Urumea ibaian isuri ondoren, Donostian itsasoratuko da.

Landaretza eta animaliak

Aiako Harriarekin gertatu zen bezala, bertako errekurtsio naturalen ustiapenaren ondorioz, mendeetan zehar Artikutzako parajeek aldaketa handiak jasan dituzte.

Abeltzaintza izan zen lur hauek jasango duten lehen ustiapen mota. Horren lekuko, inguru hauetan aurkitutako aztarnategi arkeologiko ugariak dira. Erdi Aroan, berriz, sortuko dira burdinaren metalurgia guneak eta parentesi baten ondoren, meategien ustiapena XIX. mendearen bukaeran berriro indartuko da. Horrela, industria metalurgikoarekin guztiz loturik dagoen ikazkintza izango da paisaia eraldatuko duen beste jardueretako bat, eta horren lekuko dira pagadietan barreiatuak aurki daitezkeen "txondor-plaza" ugariak. Garai honetan emago da neurririk gabeko ustiapena, egur ikatzaren ekoizpena asko handituko da eta urte gutxiren buruan basoa zeharo soilduko dute.

Azkenik, 1919 urtean Donostiako udaletxeak erosiko ditu lur hauek eta XX. mendearen erdialdean, Enobietako urtegia eraikiko du. Azken orbaina! Garai hauetan hartuko ditu udalak babes neurriak eta milaka zuhaitz landatuko ditu ingurunea berreskuratzeko. Horretaz gain, baso ustiaketa eza, artzaintza eta ehiza debekua, arrantza kontrolatua eta ibilgailuen sarrera mugatua izan dira besteak beste, Artikutza mendizale eta naturazaleentzat paradisu txiki bat bihurtu dutenak.

Horri esker, gaur egun Artikutzak balio ekologiko handia du eta bertan ekosistema asko aurkituko ditugu. Pago, haritz, gaztainondo, pinu, izei, gorosti eta haginaren babesean, azeriak, basurdeak, katagorriak, orkatzak eta beste hainbat animalia bizi dira. Ur emari handia duten erreketan amuarrainak eta ezkailuak aurkituko ditugu. Ez dira falta anfibiok eta narrastiak, eta bertan, besteak beste, apoak, arrabioak, uhandreak, baso igelak, musker berdeak, eskulapioren sugeak, sugandilak eta abar ikusi ahal izango ditugu. Eta hauek guztiak hegazti mota askoren begiradapean, hala nola, arranoak, aztoreak, gabiraiak, birigarroak, belatzak, hontzak... barrutiaren zaindariak bailira.

Artikutza baso aberatsa da, milioi bat zuhaitz inguru daude, bertakoak zein kanpotik ekarri eta gizakiak landutakoak. Eta hauen enbor zein lur inguruetan mota askotako perretxikoak hazten dira: ondoak, ardagaik, zizak, lanpernak eta abar luze bat.

Zenbait argibide...

● Nola iritsi

Artikutzara iristeko bi modu daude:

- 1- Diartzungo auzoak diren Altzibar eta Karrika atzean utzi ondoren, Artikutzara igotzen den errepide luzea (13 km) hartuko dugu (GI 3631). Eskaseko atezaindegira iristean aparkalekua ikusiko dugu eta baimena edukiz gero, langa igaro eta beste 7 kilometro beteko ditugu auzora heldu aurretik.
- 2- Goizuetara iritsi baino lehen, errepide estu batek Arriurdiñetako atakaren ondora eramango gaitu, baina hau beti itxita egoten denez, harrobi zaharren ondoan utzi beharko dugu ibilgailua.

● Baimenak

Oinezkoentzat sarrera libre da, baina autoz sartzeko baimena eskatu behar da Donostiako Udalan. Baimena lortzeko informazioa 943 481030 telefono zenbakira deitu behar da. Bizikletaz sar badaiteke ere, pistak edota errepideak erabiliko dira soilik.

● Natur Eskola

Donostiako Udalak 2004-2005 ikasturterako abian jarri zuen Ingurumen Heziketa programa berria da Natur Eskola. Proiektuak "Artikutza Natura" izena du, eta LH, DBH, Batxilergoa, HHI, Jubilatuta Elkarte nahiz Euskaltegiatarako jarduerak abian jartzen ditu. Eskaintzen duen produktu nagusia interpretazioa oinarritzat duen Ingurumen Heziketa Integralaren programa da, Artikutzako inguru paregabearen gauzatuz. Harremanetan jartzeko:

- Artikutza Natura. Donostiako Udala. Igentea kalea, z/g. 20003 Donostia.
- Bisitariari harrera egiteko telefonoan informazioa eskatu: 679 581200
- Posta elektronikoz idatzi: artikutzanatura@donostia.org

● Ibilbide gidatuak

Udazkenarekin batera Artikutzako lurak ezagutzeko ibilbide gidatuak antolatzen dira. Irteerak igandetan izaten dira goizeko 10etatik 14:00ak bitartean eta bi igandetan behin burutzen dira, abendua bitartean. Bisiten zehaztasunak ezagutzeko www.donostia-artikutza.org web gunea kontsultatu edo astelehenetik ostegunera, 11:00etatik 16:00etara telefono zenbaki honetara deitu: 690 720264.

● Beste telefono zenbaki batzuk

- Artikutzako administrazioa: 948 397036
- Eskaseko atezaindegia: 608 179437
- Artikutzako aterpea: 943 310268
- Donostiako Udala: 943 481000

Zenbait mapa eta liburu...

● Bibliografia

- Altuna, J. *Lehen Euskal Herria*. Gero, 1975.
- Angulo, M. *Euskal Herriko inguru gordea*. Elkar, 1987.
- Angulo, M. *Gure mendietako bide ezezagunak*. Elkar, 1989.
- Aranzadi Zientzia Taldea. *Artikutza gidaliburu ekologikoa*. Donostiako Udala, 1989.
- Peña Santiago, L. P. *Euskal Herriko 100 gailur eta 1000 txoko*. 1990.
- E M F. *Euskal Herriko mendien katalogoa*. Pyrenaica, 1990.
- Arrizabalaga, M. *Rutas y paseos por Aiako Harria y Artikutza*. Sua ed., 1997.
- Agirre, E. *Artikutza bisitarien gida*. Donostiako Udala, 2003.

● Kartografia

- **Artikutzako mapa**. 1:20.000. Etnogintza. L. del Barrio, L. Zaldua, 1994.
- **Artikutza-Mendaur**. 1:25.000. Aranzadi Zientzia Elkarte. Imanol Goikoetxea. 1995.
- **Goizueta-Arano**. 1:15.000. Basauntz, Obie eta Umore-ona elkarteak. 1996.



■ *Amanita muscaria*



■ Pottokak eta ardiak Bianditzeko lepotik gertu

■ Goroldioak pago enborrean aurkitu du bizilekua



LAS ENTRAÑAS DE ARTIKUTZA

7 recorridos circulares

RESUMEN

EN los densos y profundos bosques que se deslizan por las laderas de los montes que rodean la finca de Artikutza se ocultan testigos mudos de épocas pasadas. Si nos adentramos en el corazón de sus estrechos valles, tendremos la oportunidad de leer pasajes de la historia que aún permanecen dormidos en el regazo de la naturaleza, y además, si visitamos estos parajes esculpidos por las aguas de los riachuelos, nos daremos cuenta de la importancia que tuvieron antaño. En cualquier rincón encontraremos restos de antiguas actividades, así como lugares llenos de magia y misterio.

A través de estos siete recorridos circulares además de practicar el senderismo por los amplios y hermosos bosques que pueblan toda la finca, tendremos la oportunidad de conocer diferentes pasajes de la historia del lugar, alguna que otra leyenda y sobre todo conoceremos la importante actividad minera y metalúrgica que tuvo la finca a través de los siglos. Nos remontaremos a la Prehistoria con los innumerables crómlech y algunos dólmenes que encontraremos sobre todo en la zona alta. Viajaremos a la Edad Media a través de los vestigios que certifican que estos terrenos antaño fueron posesión de la Colegiata de Roncesvalles. Siguiendo el antiguo trazado del ferrocarril de vía estrecha podremos visitar los restos de las diferentes ferrerías en las que destacan las de Urdallue, Goizarin y Elama. Tendremos la oportunidad de descansar en el pequeño poblado de Artikutza compuesto por unas pocas casas y la ermita de San Agustín. Un lugar en el que reina la madre naturaleza con todo su esplendor y le acompaña el silencio, solamente roto por el murmullo de los abundantes riachuelos que surcan los valles vertiendo sus aguas en la presa Enobieta. ¡La última herida! □



MIKEL ARRIZBALAGA ARGIZKIAK

■ Orbelak lurra tapizatzen du neguan.